


# Nafarroako Pirinioak: etorkizunerako ate bat zabalik (III)

**EKAINAK 22**

Otsagabiko Javi Eseverri zentro soziokulturala

Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak

Gaztelaniaz

Kredituak: 0,5

35 ikaspostu

15 €

10 ordu

Otsagabia / Ochagavía

Bukatuta, Concluido

2024ko ekainaren 19a arte

Otsagabian eginen den ikastaro honen helburua da dibulgazio zientifikoa eta inguru horretako berezko kulturaren ezagutza uztartuko dituzten jarduerak proposatzea, eta

hango jendeari aukera ematea ideiak eta ezagupenak eman eta har ditzaten eta ibar batzuen eta besteen artean elkarlanean aritzeko loturak sor ditzaten denentzat interesgarriak diren proiektu kultural eta ekintzailetzakoak diseinatzeko.

Horretarako, ikastaroko programaren bidez, herritarrei eta haien etorkizunari buruz unibertsitateek eta erakunde lokalek egindako azterlanen berri emanen da, batetik, eta, bestetik, tokiko kulturaren alderdi batzuk ezagutzera emanen dira, besteak beste gastronomia tradizionala eta hark, tokiko produktuari lehentasuna emanez, sukaldaritza modernoago baterantz egindako bidea; azkenik, etorkizunean tokiko jarduerak bideratzeko ekintzailetza eta haren ikuspegi estrategikoa azalduko dira.

Gure asmoa da ekarpenak eginez eta esperientzia askotarikoak azalduz eztabaida aberastuko duten hizlariak ekartzea, harremanak estutu eta aurrerago elkarlanean aritu daitezen zailtasunak dituen eta eraldatzen ari den inguru hori garatzeko, aprobetxatzeko moduko aukerak ematen baititu horrek beti.

## NORENTZAT

Unibertsitateko ikasle eta irakasleentzat, eragile sozial, ekonomiko eta kulturalentzat eta, oro har, nahi duenarentzat.

## IKASTAROAREN ZUZENDARIA

Elvira Sanz Tolosana, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologiako eta Gizarte Laneko Saileko irakaslea.
Begoña López García, Dos Navarras elkarteko burua.
==============================================

Antolatzaileek autobusa jarriko dute izena eman dutenak Otsagabira eramateko.
7:45ean abiatuko da Iruñeko autobus geltokitik.
Ikastaroan izena eman dutenentzako bazkaria ez dago prezioan sartua, eta 20 € balio du.
Autobusa hartu eta/edo bazkaldu nahi dutenek jakinarazi egin behar dute helbide elektroniko honetara mezu bat bidaliz:

info.dosnavarras@gmail.com
===========================================

## LARUNBATA 22 EKAINA

9:15-9:30  Ongietorria

**Ikastaroaren aurkezpena**

Mikel Aoiz Iriarte, Otsagabiko alkatea.

Elvira Sanz Tolosana, NUPeko Soziologiako eta Gizarte Laneko Saileko irakaslea.

Begoña López García, artearen historialaria eta kazetaria. Dos Navarras elkarteko burua.

9:30-10:30  Mahai-ingurua

**Egungo eta etorkizuneko ekimenak ekonomiarako eta biztanleriaren sostengurako**

M. Jesús Rivera Escribano, NUPeko Soziologiako eta Gizarte Laneko irakaslea.

Luis Antonio Saez Pérez, UNIZAReko Ekonomia Aplikatuko irakaslea.

José M. Agramonte Aguirre, Errege Bardearen Komunitateko burua.

10:30-11:30  Hitzaldia

**Ondare artistikoa Zaraitzu ibarreko paisaiaren barrenean**

Begoña López García, Dos Navarras elkarteko burua.

12:00-13:00  Mahai-ingurua

**Zaraitzu ibarreko ekintzailetza-ekimenak**

Rubén Goñi Urroz, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko zuzendari nagusia.

Gonzalo Celay Iriarte, harrak hazteko enpresa bateko burua.

Inés Patricio, arkitektoa.

13:00-14:00  Hitzaldia

**Pirinioetako ondare kultural materiagabea: ondarea babestetik balioa ematera**

Alfredo Asiain Ansorena, NUPeko Ondare Immaterialaren Katedraren zuzendaria.

16:30-18:30  Mahai-ingurua

**Gastronomia eta 0 kilometroko produktuak**

Gorka Aguinaga, Iruñazarra jatetxeko sukaldaria.

Martín Sarobe González, Nafarroako Gastronomia Akademiako presidentea.

18:30-19:30  Bisita kulturala

**Koleto etxea**

Mikel Aoiz Iriarte, Otsagabiko alkatea.

## ANTOLATZAILEA

NUP

## BESTE ANTOLATZAILE BATZUK

Dos Navarras elkartea

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

AYUNTAMIENTO DE OCHAGAVIA
OTSAGABIKO UDALA

HOTEL PUERTA DE IRATI

Silken
HOTELES

Bardenas Reales

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Cátedra Bardenas Reales de Ciencia y Patrimonio
Zientziaren eta Ondarearen Errege Bardea Katedra

Asociación Dos Navarras
Association Deux Navarres
Bi Nafarroa Elkartea

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**FINANTZATZAILEA**

Cátedra Bardenas Reales de Ciencia y Patrimonio de la UPNA

Hotel Silken Puerta de Irati

---

© Universidad Pública de Navarra

---